

MUTILLA TA MUSKERRA



Egutegi onetan, Bustintza'tar Erroseren (Mañariko) ainbat idazlan argitaratu doguz aurreko urteotan: erri-errikoak, edozeñek errez aituteko lakoak danak. Gure euskera maiteak badautzo berarizko zorra emakume zintzo oneri, beti-beti Jaunzale ta euskalzale beroa izan zan emakumen oneri. Askoren gogoko izango litzake ipuin guzti oneik bildu ta idazti baten argitaratzea; eta baleiteke aldi gitxi barru onako zer edo zer agertzea.

Ara gaur, eurotariko polit-polit bat:

Igande-goiz baten «Otxintxueta»-ko mutil gaztia, ez mezarik entzun, ez ur-onetsirik artu, kistarraren ezetariko biarkunik betetu barik patxaraz-patxaraz basora juan zan.

Mutilla, juan eta juan bayoyan bidian; eta aurrera ta aurrera egiñaz mendi gallurrerantza egiten eban beti.

Eta bide zati andija olan igarota, zastraka-arte batera eldu zanian, pizti narraz batek eskerreko oñian; zart! minbixi mingarrija egin eutsola uartu eban. «¡Ai-ene!» andi bat egiñaz begirutzen dau, ta musker andi batek bere oñian abua ezarrita eukola ikusi eban.

Estutu zan, larritu zan; eta esku-makilliaz zartada errimiak emoten eutsozan arren, muskerrak ikerarik bez, gogor bertan.

Ori ikusita, mutilla, ara ingurutara begi-luzez begiratuaz laguntza-eske didar baten asi zan.

Bere didar zolijetara, bertatik,

atsotxu bat agertu zan. Eta atsotxu zarra, mutillaren oñian alako musker andija ikusi ebanian, gelduta geratu zan. Eta zur eta lur eginda, bere esku bijak buruban ebazalarik, mutillari erruki andiz esan eutson:

—¡A... mutil...! Ederra daukok aldian... Gaur, igandez, mezarik entzun dok...?

—Ez, ez tot entzun, erantzun eutson mutillak negar muskerijoz.

—Eta ur-bedeinkaturik artu...?

—Ezta...

Kistar-biarkunak ezebazala betetu ikusi ebanian, atsuak barriro bere esku biak burura jaso ebazan; eta olan luzarotxuan egonda gero, tamal-tamalez esan eutson:

—Ire galdua mutil...! ori olan badok... orain pizti orren abua ire aragitik aldentuteko, iru erritako elexako kanpajak amar miñutuen barruan ots-egin biarko juek. Bestela... ire zoritxarraren zoritxarra...

Muskerra oñian dokala, or egon biar-ko dok betiko.

Itz bildurgarrijok entzunikuan, mutillak, garratzago negar egiten eban; amar miñuturen barruan iru erritako kanpajak jotia gauza gatxa be gatxa izango dala-ta.

Negar asko-asko eginda gero, bere begiak begirakune-illunez zuzenduta, atsuari abots-illunez itandu eutson:

—Eta... amar miñuturen barruan, iru errijeteko kanpajak, nok joko dauz?

—Besterik ezian, neuk joko jua-daz, mutil...-erantzun eutson atsuak errukiz. Ori egiteko eure obenakaz damututa aguan ala ez jakin biar baña... Damu az ;eztok?

—Bai, damu naz... erantzun eutson mutillak bular-joka.

Orduan ,atsua, «ondo jagok» esanda, iru erritara juan zan; eta eure-

tariko elexetako kanpajak gogo-be-roz jo ebazan.

Lenengo erriko kanpajak, bere otsagaz batian esan eban:

«Txalan, txalan, mezarik entzun eztaulako, muskerra oñian.»

Bigarrenekuak barriz:

«Txilin, txilin, ur bedekaturik artu eztaulako, muskerrak min-egin.»

Irugarrenekuak ostera:

«Txolon- txolon, txarto egiñaz da-mutu dalako ,ontxe bertan zori-on.»

Eta azkenengo kanpai-otsagaz batian, muskerra ,mutillaren ondotik arrapaladan aldendu zan ;eta, bidezidorretik arin-arinka juanda sasipe baten sartu zan.

Olan, mutilla, muskerraren abo-tik azke geratu zan; oratuaren ezau-garririk be geratuten etxakolarik.

MAÑARIKO

FATIMAKO AMA BIRJIÑA KARMENGO ESKAPULARIOA BERRIO-OTXOAREN BIZITZA

Aita Antonio Goiriak egindako iru liburuak

Salgai, Karmeldarren conbentuetan